

# Getxo >MEETING<



## **Getxo Meeting otsailaren 15ean: Sormena lantaldean, konpondutako arazoa.**

Gai honetan denak gaude ados: Ze ondo egiten den lan ondo lan egiten denean, ezta? Taldean lan egiten dugunean, arazoak zailagoak dira eta garaipenak, gozoagoak. Horregatik, Getxon negozio propioa daukan jendearekin hamabostean behin egiten dugun topaketan, bi pertsona edo gehiagoko lantaldea dagoenean sormena sustatzeko orduan klabe interesgarriak aurkitu beharra azpimarratu genuen.

Funtzionatzen ez duenean, zergatik izaten da? Aurreko saiora etorri zen jende guztia ados zegoen gauza batzuetan: zaila da ideiak gauzatzea, askotan proiektua fokoa ondo zentratu gabe hasten da, galdera nahikoak egin gabe, eta prozesuetan, sarritan, inplikazio gutxi dago. Eta kritikoegiak izateagatik, botere-jokoengatik, azaleratzen diren egoengatik, eta abar, bakoitzak berea baino ez ohi du ikusten. Horrek guztiak ekartzen du jendeak elkar ez ulertzea, astirik ez izatea (denbora alferrikako eztabaidetan xahutu delako), eta motibazioa galtzea.

Horregatik, antidotoen zerrenda bat egin nahi dugu, eta jarrera-aldaketa batzuk landu, hobeto lan egiteko bezeroekin, kolaboratzaileekin, hornitzaileekin, langileekin eta abar.

Hona hemen zeure lantaldea gehiago motibatzeke eta, beraz, sormen handiagoa izateko, zerrenda magikoa:

1. Lan-arauak ezartzea, talde berri batekin.
2. Entzute aktiboa landu. Enpatia jorratu. Mezu argi eta zuzenak bidali.
3. Helmuga argiak. Helburu bat, beharrianak identifikatzea.

4. Planeatu. Erdibideko mugarrak edukitzea eta dimentsionatzea. Egutegi bat.
5. Ekintza zehatzenak eta epe motzak ere lehenestea eta planeatzea.
6. Pertsona bakoitza eta taldea oro har motibatzea.
7. Eginkizunak banatzea, helburu argiekin.
8. Tolerantzia eta mentalitate irekia sustatzea, ideiak eta ametsak sortuz.
9. Norbere buruari galderak egitea, galderak birformulatzea, ezarritako beharrian eta asmoei egokitzeko.
10. Arduradun-kate bat finkatzea, arazoak bideratzeko.
11. Errendimendu txikiko jendea badago, detektatu: pentsatu zein den bakoitzaren beharria, jarrera horren azpian.
12. Eustea, automotibazioa praktikatu.
13. Inplikaturako pertsonekin emaitzak konpartitzea, lorpenak ospatzea.
14. Balizko hobekuntzak taldean pentsatzea, entzunez.

Konponbideak jartzean, konturatu ginen alde emozionala lantzea oso garrantzitsua dela, eta funtsezkoena dela proiektuaren hasieraren bidez jendearen gogoia pizten jakitea eta lortu gura denaren espiritua transmititzen jakitea.

Zer kenduko zenuke zerrendatik? Eta zer erantsi? Ikusten duzunez, saio hauen bidez beti egin dezakezu aurrera gehiago, eta hobeto, zeure negozioan. Eta galdera berriak egiten dizkiozu zeure buruari aurrera segitzeko.

Getxo Meetingen hurrengo saioa martxoaren 1a da, osteguna, 14:30etik 16:30era. Gaia? Oraingoan...

“Nola muntatu azkar batean marketineko mikro-ekintza bat. Forma ematen lagunduko al diogu elkarri? Taldeka egingo dugu lan, zeure negozioa ezagutzera ematearekin zerikusia duten erronketarako ideiak sortzeko.

Ziur gaude denbora aprobeztatuko duzula, ikuspegi berriak ezagutuko dituzula eta kontaktu interesgarriak egingo dituzula.  
Getxolanen itxarongo dizugu.